- La participación en la empresa y la cooperación interempresarial.

Artículo 39.- Derecho al buen gobierno y a la buena administración

- 1.- Los poderes públicos vascos velarán en el ejercicio de sus funciones por la interdicción de la arbitrariedad en las administraciones, el derecho al buen funcionamiento de éstas y la función social de los fines político-administrativos en la gestión pública.

De acuerdo con ello, se garantizará a todas las ciudadanas y ciudadanos vascos el derecho al buen gobierno y a la buena administración, que se materializará mediante el desarrollo de los

nomikoekin batera, ongizateko gizarte-esparru bat bultzatu behar dute solidaritatearen, kohesioaren eta aurrerapen sozial, kultural, ekonomiko eta materialaren printzipioetan oinarritua.

Horrekin bat etorritz, euskal autogobernua aurrerapen etikoko esparru sozial eta ekonomiko batean garatuko da, balio hauek oinarri dituela:

- Pertsonen ongizatea eta bizi-kalitatea.
- Justizia soziala, eta premia handiena duten pertsonekiko solidaritatea.
- Pertsona guztiak hezkuntza, osasun eta gizarte-babeseke sistema egoki eta kalitateko batera iristeko bermea.
- Gizonezkoen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna alor guztietan.
- Aberastasuna ekitatez banatzean oinarritutako gizarte-esparrua.
- Enplegu betearen lortzea eta enplegu duina eskuratzeko bermea.
- Lurraldeen arteko eta gizarteko oreka eta koherentsia.
- Euskal instituzio guztiek tolerantzia eta balio demokratikoak bultzatzea.
- Gizarte zibilaren aniztasunaren eta partaidetza demokratikoaren errespetua.
- Garapen iraunkorra.
- Enpresa-askatasuna eta aberastasun-sorkuntza.
- Enpresan parte hartzea eta enpresen arteko lan-kidetzak.

39. artikulua.- Gobernu onerako eta administrazio onerako eskubidea

- 1.- Euskal agente publikoek, beren eginkizunak betetzen ari direnean, honako alderdiok zainduko dituzte: arbitrariorotasunaren debekua administrazioetan, administrazioen jardura ona izateko eskubidea, eta helburu politiko-administratiboaren eginkizun soziala kudeaketa publikoan.

Horrekin bat etorritz, gobernu onerako eta administrazio onerako eskubidea bermatuko zaie euskal herritar guztiei, eta eduki hauek garatuz gauzatuko da eskubide hori:





siguientes contenidos:

- El funcionamiento transparente de la Administración, la información sobre los derechos y los procedimientos, el acceso a los registros públicos y la motivación suficiente en la actuación administrativa.
- La garantía eficaz de la cooficialidad lingüística.
- La funcionalidad, eficacia y simplicidad de los procedimientos administrativos y la tramitación sin dilaciones indebidas.
- La aplicación de la presunción de que las administradas y administrados actúan siempre de buena fe, salvo prueba en contrario a cargo de la Administración.
- La correspondencia, en términos de eficiencia, entre el coste de los servicios públicos, su justificación social y los resultados obtenidos.
- El deber de las administraciones de velar en cada actuación por la aplicación de modelos de calidad, estableciendo instrumentos de evaluación externa de los servicios que prestan, más allá de los controles administrativos.
- La plena y eficaz responsabilidad por el funcionamiento administrativo que resulte deficiente, de acuerdo con las leyes.
- Administrazioaren jarduteko era garde-na, eskubideen eta prozeduren gaineko informazioa, erregistro publikoetara iris-tereko aukera eta administrazioaren jar-dueraren arrazoi nahikoa.
- Hizkuntza-koofizialtasunaren berme era-ginkorra.
- Administrazio-prozeduren funtzionaltasuna, eraginkortasuna eta bakuntasuna, eta saihets litekeen atzerapenik gabeko izapidetzea.
- Administratuek beti fede onez dihardute-lako ustea aplikatzea, Administrazioak kontrakorik frogatzen ez duen artean.
- Eragimenaren aldetik, zerbitzu publikoen kostuaren, horien justifikazio sozialaren eta lortutako emaitzen artean egokitasuna izatea.
- Administrazioek jarduera bakoitzean kalitateko ereduen aplikazioa zaindu beharra; horretarako, ematen dituzten zerbitzuen kanpoko ebaluaziorako tresnak ezartzea, administrazio-kontroluz haratago.
- Administrazio-jarduera eskasagatiko erantzukizun oso eta eraginkorra, legeekin bat etorritz.

2.- El Parlamento Vasco establecerá por ley una carta de los servicios públicos que han de ser ofertados por las administraciones públicas vascas de acuerdo con su régimen respectivo. En dicha carta se incorporarán los servicios establecidos en la Carta Europea de los Derechos Sociales y podrá determinarse un régimen sancionador ante el incumplimiento de deberes que conlleve la falta de responsabilidad personal o insolidaridad con la comunidad.

2.- Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez, euskal herri-administrazioek –zeinek bere araubidearen arabera– eskaini beharreko zerbitzu publikoen gutuna ezarriko da. Gutun horretan, Europako Gizarte Eskubideen Gutunean ezarritako zerbitzuak jasoko dira, eta, halaber, zehatzeko araubide bat ere ezarri ahal izango da betebeharren batzuk ez betetzeak erantzukizun pertsonalik eza edo komunitatearekiko solidaritaterik eza erakusten duen kasuetarako.

Artículo 40.- Participación de la sociedad civil

40. artikulua.- Gizarte zibilaren parte-hartzea

1.- Los poderes públicos vascos establecerán los mecanismos adecuados para facilitar y estimular la participación ciudadana en los asuntos públicos, incluidos tanto el ámbito socioeconómico como también los ámbitos sociales, culturales y educativos, a través de los instrumentos determinados por una ley del Parlamento Vasco o por sus leyes sectoriales.

1.- Euskal aginte publikoek bide egokiak ezarriko dituzte herritarrei gai publikoetan parte hartzea errazteko eta horretara bultzatzeko, bai arlo sozioekonomikoari eta bai gizarte, kultura eta hezkuntzako arloei dagokienez, Eusko Legebiltzarraren lege batek zein beraren arlokako legeek zehaztutako tresnen bidez.





2.- Se regulará por el Parlamento Vasco el derecho de petición individual o colectiva.

Capítulo segundo

Del régimen general de ejercicio del poder público

Artículo 41.- Principios de relación administrativa con el Estado

Constituyen principios básicos de relación administrativa entre la Comunidad de Euskadi y el Estado español, respecto al ejercicio de sus respectivas competencias o atribuciones, los siguientes:

- a) El intercambio de información, la coordinación y la cooperación, de acuerdo con la lealtad institucional y en el marco de los mecanismos de colaboración y de garantías recíprocas que se establecen en el presente Estatuto.
- b) El respeto y la no injerencia en el ejercicio de potestades y ámbitos competenciales respectivos, de conformidad con la asignación y el reparto que se recogen en el presente Estatuto.
- c) La subsidiariedad, a través del criterio de la administración más idónea, respecto al ejercicio de todas las potestades públicas de ejecución.
- d) La armonización de actuaciones cuando se susciten divergencias entre las instituciones respectivas, sin perjuicio de la aplicación del sistema de garantías y procedimientos establecidos en este Estatuto.

Artículo 42.- Las políticas públicas en el reparto competencial

- 1.- Para la asignación y reparto del poder público en la Comunidad de Euskadi se atenderá prioritariamente al criterio de atribución de políticas públicas, aplicándose el reparto por materias de forma subsidiaria y a los efectos de su incorporación en una política pública determinada.
- 2.- Constituye una política pública, a los efectos del presente Estatuto, el conjunto de materias competenciales y actividades administrativas sobre las que las instituciones ejercen las potestades legislativas y de ejecución precisas para su plena conformación y desarrollo, en orden a prestar un servicio integral a las ciudadanas y ciudadanos vascos.

Artículo 43.- Atribución de potestades legislativas

2.- Eusko Legebiltzarrak arautuko du banaka nahiz taldeka eskariak egiteko eskubidea.

Bigarren kapitulua

Aginte publikoa erabiltzeko araubide orokorra

41. artikulua.- Estatuarekiko administrazio-harremanerako printzipioak

Ondorengoak izango dira Euskadiko Erkidegoaren eta Espainiako Estatuaren arteko administrazio-harremanaren oinarritzko printzipioak, bakoitzak bere eskumen edo eskurantzak erabiltzeari dagokionez:

- a) Informazio-trukea, koordinazioa eta lankidetzaren, instituzioen arteko leialtasunarekin bat etorritako eta Estatu honetan elkarlanerako eta elkarrenganako bermeak izateko ezarritako bideak erabiliz.
- b) Alde bakoitzaren ahalekin erabilera eta eskumen-eremuak errespetatzea eta bata bestearen eremuan ez sartzea, Estatu honetan egindako esleipen eta banaketarekin bat etorritako.
- c) Subsidiariorik, administratzaile egokienaren irizpideari jarraituz, betearazteko ahal publiko guztiak erabiltzerakoan.
- d) Jarduerak harmonizatzea, alde bateko eta beste instituzioen artean desadostasunak sortzen direnean, Estatu honetan azarritako berme-sistema eta jarduteko modua aplikatzeari utzi gabe, betiere.

42. artikulua.- Politika publikoak eskumeneren banaketan

- 1.- Euskadiko Erkidegoan aginte publikoa nori esleitu eta nola banatu zehazteko orduan, lehen-tasuna izango du politika publikoak banatzeko irizpideak; gaien banaketa modu subsidiarioan egingo da, eta politika publiko jakin batean jasotzeko.
- 2.- Estatu honi dagokionez, honako hau da politika publikoa: euskal herritarrei zerbitzu integrala emateko, instituzioek, behar diren legegintzako eta betearazteko ahalak erabiliz, erabat hezurmamitu eta garatu ditzaketen eskumen-gai eta administrazio-jardueren multzoa.

43. artikulua.- Legegintzako ahalak euskal institu-





a las instituciones vascas

- 1.- Corresponderá a la Comunidad de Euskadi ejercer en su ámbito territorial la potestad legislativa en todas aquellas políticas públicas y ámbitos competenciales no atribuidos expresamente al Estado en el presente Estatuto.
- 2.- En las políticas públicas y ámbitos competenciales atribuidos a la Comunidad de Euskadi con carácter exclusivo, dispondrá de la plena titularidad de las potestades normativa, legislativa y reglamentaria o de desarrollo. El Derecho emanado de las instituciones vascas en dichos ámbitos será el único aplicable en la Comunidad de Euskadi, sin perjuicio de la aplicación directa del Derecho europeo cuando proceda, en cuyo caso corresponderá a las instituciones vascas la transposición al propio ordenamiento jurídico de las disposiciones europeas que así lo requieran.
- 3.- En virtud de este Estatuto, la aplicación en la Comunidad de Euskadi de las reservas de ámbitos materiales correspondientes a las leyes orgánicas del Estado se entenderá sin perjuicio del respeto a lo que regulen las leyes vascas sobre las instituciones y las políticas públicas y ámbitos competenciales atribuidos a la Comunidad de Euskadi con carácter exclusivo.

Artículo 44.- Atribución de potestades de ejecución a las instituciones vascas

- 1.- En virtud de este Estatuto, con carácter general, corresponden a la Comunidad de Euskadi, dentro de su territorio, las potestades de ejecución de todas las políticas públicas, salvo en aquellas políticas públicas atribuidas al Estado con carácter exclusivo en el ámbito de la Comunidad de Euskadi, de acuerdo con lo dispuesto en este Estatuto.
- 2.- Las potestades de ejecución atribuidas a las instituciones vascas se extenderán a todas las funciones ejecutivas, tanto de las leyes estatales que correspondan como de las leyes vascas, y comprenderán la potestad de dictar los reglamentos de desarrollo, ejecutivos y de organización de las leyes, así como la completa gestión y administración de los servicios, incluida la función inspectora y revisora. A estos efectos, únicamente serán aplicables en el ámbito territorial de la Comunidad de Euskadi las normas reglamentarias e instrucciones dictadas por las instituciones vascas y sus correspondientes autoridades.

zioen esku uztea

- 1.- Euskadiko Erkidegoaren eginkizuna izango da bere lurraldean legegintzako ahala erabiltzea Estatutu honetan berariaz Estatuaren esku utzi ez diren politika publiko eta eskumen-eremu guztietan.
- 2.- Oso-osorik Euskadiko Erkidegoaren esku utzitako politika publiko eta eskumen-eremuetan, horiei buruzko araugintza, legegintza eta erregelamendugintzako edo garapenerako ahalak berarenak baino ez dira izango. Eremu horietan euskal instituzioek sortutako Zuzenbidea izango da Euskadiko Erkidegoan aplikatuko den bakarra; hala dagokionean, ordea, Europako Zuzenbidea aplikatuko da zuzenean, eta orduan euskal instituzioen eginkizuna izango da Europako xedapenak Euskadiko Erkidegoko ordenamendu juridikora ekartzea, beharrezkoa bada.
- 3.- Estatutu honen arabera, Estatuko lege organikoentzat gordetako gaietan araututakoa Euskadiko Erkidegoan aplikatzekoa bada ere, errepetatutako egin beharko da euskal legeek instituzioei buruz araututakoa eta oso-osorik Euskadiko Erkidegoaren esku utzitako politika publiko eta eskumen-eremuei buruz araututakoa.

44. artikulua.- Betearazteko ahalak euskal instituzioen esku uztea

- 1.- Estatutu honen arabera, Euskadiko Erkidegoarenak dira, orokorrean eta haren lurraldean, politika publiko guztiak betearazteko ahalak, non eta ez diren Euskadiko Erkidegoan bertan ere oso-osorik Estatuaren esku utzitako politika publikoak, Estatutu honetan xedatutakoarekin bat etorriz.
- 2.- Euskal instituzioen esku utzitako betearazteko ahaletan sartzen dira betearazte guztiak, bai Estatuko kasuan kasuko legeak betearaztea bai euskal legeak betearaztea; ahal horietan sartzen da legeak garatu, betearazi eta antolatze erregelamenduak emateko ahala ere, eta orobat zerbitzuak oso-osorik kudeatu eta administratu ahal izatea, ikuskatu eta berrikusteko eginkizuna barne dela. Horren ondorioz, Euskadiko Erkidegoaren lurralde-eremuan, euskal instituzioek eta instituzio horietako agintariek emandako erregelamendu eta jarraibideak baino ez dira aplikatuko.





- 3.- Las atribuciones y competencias de la Comunidad de Euskadi previstas en este Estatuto se entenderán referidas a su ámbito territorial. En el caso de que la regulación o el ejercicio de sus potestades por parte de las instituciones vascas pueda afectar a otros ámbitos territoriales externos, se arbitrarán los correspondientes convenios de cooperación y colaboración con las autoridades estatales o autonómicas con las que proceda.
- 4.- El Estado garantizará el derecho de la Comunidad de Euskadi a designar representantes que participarán al máximo nivel rector en las autoridades administrativas independientes, instituciones financieras y empresas públicas españolas cuya actuación incida, directa o indirectamente, en las competencias o intereses de Euskadi.

Capítulo tercero De las políticas públicas exclusivas del Estado

Artículo 45.- Políticas públicas atribuidas al Estado en el ámbito de la Comunidad de Euskadi

- 1.- En su relación con la Comunidad de Euskadi, quedan reservadas al Estado bajo carácter exclusivo las potestades legislativas y de ejecución que correspondan, en los términos que a continuación se establecen, a los efectos que requiera la elaboración, ejecución y control de políticas públicas en los siguientes ámbitos:
- a) Nacionalidad española, extranjería y derecho de asilo, sin perjuicio del carácter compartido de las políticas de emigración e inmigración en función de su incidencia en las políticas sectoriales exclusivas de la Comunidad de Euskadi.
 - b) Defensa y fuerzas armadas.
 - c) Régimen de producción, comercio, tenencia y uso de armas y explosivos.
 - d) Sistema monetario.
 - e) Régimen aduanero y arancelario.
 - f) Marina mercante; abanderamiento de buques y matriculación de aeronaves, y control del espacio aéreo.
 - g) Relaciones internacionales, sin perjuicio de las actuaciones con repercusión exterior que se reconocen a la Comunidad de Euskadi en este Estatuto.

- 3.- Estatutu honetan aurreikusten diren Euskadiko Erkidegoaren eskurantz eta eskumenak Erkidego horren lurralde-eremurako direla ulertu behar da. Euskal instituzioek beren ahal horiek arautzeak edo erabiltzeak kanpoko beste lurralde-eremuren batean eragin badezake, Estatuko edo autonomia-erkidegoko kasuan kasuko agintariekin elkarlan eta lankidetzarako hitzarmenak bideratu beharko dira.
- 4.- Estatuak bermatu egin beharko du Euskadiko Erkidegoak administrazio-aginte beregainetan, finantza-erakundeetan eta Espainiako enpresa publikoetan zuzendaritza-mailarik gorenean parte hartuko duten ordezkariak izendatzeko duen eskubidea, baldin eta antolakunde horien jardunak Euskadiren eskumen eta interesetan zuzenean zein zeharka eragiten badu.

Hirugarren kapitulua Estatuaren politika publiko eksklusiboak

45. artikulua.- Euskadiko Erkidegoan Estatuaren esku izango diren politika publikoak

- 1.- Euskadiko Erkidegoarekin duen harremanean, oso-osorik Estatuarenak izango dira legegintzako eta betearazteko ahalak, ondoren zehazten den moduan, jarraian aipatzen diren arloetako politika publikoak taxutu, betearazi eta kontrolatzeko:
- a) Espainiako naziotasuna, atzerritartasuna eta asilo-eskubidea, nahiz eta emigrazio eta immigrazioarekin zerikusia duten politikak partekatuak izango diren, Euskadiko Erkidegoaren politika sektorial eksklusiboetan eragina duten neurrian.
 - b) Defentsa eta indar armatuak.
 - c) Armak eta lehegailuak ekoitzi, salerosi, eduki eta erabiltzeko araubidea.
 - d) Diru-sistema.
 - e) Muga eta muga-sarien araubidea.
 - f) Merkataritzako nabigazioa; ontziei bandera jartzea eta aireontziak matrikulatzea, eta aireko espazioa kontrolatzea.
 - g) Nazioarteko harremanak, baina, atzerrian eragina duten jardueri dagokionez, Estatutu honetan Euskadiko Erkidegoari aitortzen zaizkion jarduerak bere





2.- Asimismo, en su relación con la Comunidad de Euskadi, queda reservada al Estado la potestad de dictar la legislación común que garantice la defensa del contenido esencial de los derechos fundamentales, sin perjuicio de la capacidad de las instituciones vascas para su desarrollo y adaptación a su Derecho sustantivo, así como para su aplicación y ejercicio de las potestades de ejecución que correspondan.

De acuerdo con ello, corresponderá al Estado:

- a) Legislación penal y procesal, sin perjuicio de las particularidades del Derecho sustantivo vasco.
- b) Legislación mercantil, sin perjuicio del desarrollo de las bases de las obligaciones contractuales de carácter mercantil y, en su caso, de las bases de los contratos y concesiones administrativas.
- c) Legislación civil, sin perjuicio del Derecho privado civil foral o propio de Euskadi.
- d) Legislación de la propiedad intelectual e industrial.
- e) Pesas y medidas, contraste de metales y determinación de la hora oficial.

Capítulo cuarto

De las políticas públicas exclusivas de la Comunidad de Euskadi

Artículo 46.- Políticas de institucionalización y autogobierno

Corresponden a la Comunidad de Euskadi con carácter exclusivo las políticas públicas de institucionalización y autogobierno. Para la elaboración, ejecución y control de estas políticas públicas, las instituciones vascas tendrán todas las potestades legislativas y de ejecución en las siguientes materias y ámbitos:

- a) Régimen privativo de autoorganización y funcionamiento, símbolos e instituciones de autogobierno.
- b) Demarcaciones territoriales dentro de la Comunidad de Euskadi.
- c) Régimen electoral.
- d) Estatuto jurídico de las funcionarias y funciona-

hantan dirautela.

2.- Era berean, Euskadiko Erkidegoarekin duen harremanean, Estatuaren esku gelditzen da oinarrizko eskubideen funtsezko edukia defentsa bermatuko duten lege komunak emateko ahala, nahiz eta euskal instituzioek izango duten lege horiek garatu eta Euskal Zuzenbide substantiboari egokitzeko gaitasuna, baita lege horiek aplikatzeko eta dagozkien betearazteko ahalak erabiltzekoa ere.

Hori hala izanik, Estuari dagokio:

- a) Zigor eta prozesu arloko legeria, baina Euskal Zuzenbide substantiboaren berezitasunek bere hartan dirautela.
- b) Merkataritzako legeria, salbu merkataritza-izaera duten kontratu-betebeharren oinarrien garapena eta, hala badagokio, administrazio kontratu eta emakiden oinarriena.
- c) Legeria zibila, baina Zuzenbide pribatu zibil foralak edo Euskadiko berezkoak bere hartan dirauela.
- d) Jabetza intelektualari eta industria-jabetzari buruzko legeria.
- e) Pisu eta neurriak, metalen kontrastea, eta ordu ofiziala zehaztea.

Laugarren kapitulua

Euskadiko Erkidegoaren politika publiko eskubiak

46. artikulua.- Instituzionalizazio eta autogobernuko politikak

Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik instituzionalizazio eta autogobernuko politika publikoak. Politika publiko horiek taxutu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte honako gai eta eremuetan:

- a) Beren buruen antolaketarako eta jarduteko araubide berezia, ikurrak eta autogobernuko instituzioak.
- b) Euskadiko Erkidegoko lurralde-barrutiak.
- c) Hauteskundearen araubidea.
- d) Funtzionarioen estatutu juridikoa.





rios.

- | | |
|--|---|
| <p>e) Procedimiento administrativo derivado del derecho y de la organización propia; expropiación forzosa, sistema de responsabilidad, patrimonio y régimen jurídico de todas las administraciones públicas de la Comunidad de Euskadi.</p> <p>f) Asociaciones y fundaciones.</p> <p>g) Derecho privado civil foral o propio de Euskadi, que incluirá:</p> <ul style="list-style-type: none">- La determinación del régimen de sujeción a este Derecho dentro de su territorio.- La ordenación y gestión de todos los registros e instrumentos públicos civiles radicados en el territorio de la Comunidad de Euskadi bajo dependencia administrativa o judicial de las instituciones vascas.- La ordenación de las relaciones jurídico-civiles relativas al Derecho de familia, incluidos los efectos de la regulación de las uniones estables de personas alternativas al régimen de matrimonio.- La ordenación de las relaciones jurídico-civiles de carácter económico y patrimonial, con respeto a las bases de las obligaciones contractuales que establezca el Estado. | <p>e) Zuzenbidetik eta berezko antolaketatik datorren administrazio-prozedura; Euskadiko Erkidegoko herri-administrazio guztien erantzukizun-sistema, nahitaez jabetza kentzeko sistema, ondarea eta araubide juridikoa.</p> <p>f) Elkarateak eta fundazioak.</p> <p>g) Euskadiko Zuzenbide pribatu zibil foral edo berezkoa. Horren barruan egongo dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Euskadiko Erkidegoaren lurraldean Zuzenbide hori nori ezarriko zaion jakiteko araubidea zehaztea.- Euskadiko Erkidegoko erregistro eta agerkari publiko zibil guztiak antolatu eta kudeatzea, euskal instituzioen menpean badaude administratiboki edo judizialki.- Familia Zuzenbideari dagozkion harreman juridiko-zibilak antolatzea, eta horren barruan sartzen dira ezkontzaraubidearen ordeko diren pertsonen arteko elkartze iraunkorrak arautzearen ondorioak ere.- Ekonomiarekin eta ondarearekin zerikusia duten harreman juridiko-zibilak antolatzea, Estatuak kontratu-betebeharren tzat ezarritako oinarriak errespetatuta. |
|--|---|

Artículo 47.- Políticas educativas y culturales

- 1.- Corresponde a la Comunidad de Euskadi el desarrollo constitucional de los derechos y deberes fundamentales respecto al régimen jurídico del uso de las lenguas, los derechos de expresión y comunicación, el derecho a la educación y la libertad de enseñanza.
- 2.- Para la elaboración, ejecución y control de las políticas públicas educativas y culturales que le corresponden con carácter exclusivo a la Comunidad de Euskadi, las instituciones vascas tendrán todas las potestades legislativas y de ejecución en las siguientes materias y ámbitos:
 - a) Enseñanza, tanto no universitaria como universitaria, en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, incluido el aprendizaje permanente.

47. artikulua.- Hezkuntza eta kultura arloko politikak

- 1.- Euskadiko Erkidegoaren eginkizuna izango da oinarriko eskubide eta betebeharren garapen konstituzionala, ondorengo arloetako araubide juridikoaz ari garela: hizkuntzen erabilera, adierazpen eta komunikazio askatasuna, hezkuntza-eskubidea eta irakaskuntzako askatasuna.
- 2.- Euskadiko Erkidegoaren eskumen eskusibo diren hezkuntza eta kultura arloko politika publikoak taxutu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo arlo eta eremuetan:
 - a) Unibertsitateaz kanpoko zein unibertsitateko irakaskuntza, arlo, maila, gradu, molde eta espezialitate guztietan, etengabeko ikaskuntza barne.





- b) Formación profesional, que incluirá todos los subsistemas de cualificación y formación profesional reglada, ocupacional y continua.
- c) Obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales.
- d) Defensa y protección del patrimonio cultural, artístico y monumental.
- e) Artesanía.
- f) Museos, bibliotecas y archivos.
- g) Cinematografía, artes escénicas, deporte y espectáculos.
- h) Régimen de prensa, radio y televisión, y en general de todos los medios de comunicación social.

3.- En relación con los aspectos sobre identidad y representación cultural de la Comunidad de Euskadi, el Estado garantizará el respeto a la representatividad internacional de la identidad vasca en todas las manifestaciones culturales de los ámbitos del deporte y de la industria, producción y creación literaria, artística, científica y técnica, incluyendo la representación de la Comunidad de Euskadi en órganos internacionales y la promoción exterior de la cultura vasca, para lo que podrá suscribir acuerdos con instituciones y organismos internacionales o de otros países.

4.- Euskadi tiene derecho a disponer, en el ámbito deportivo, de sus propias selecciones nacionales, que podrán participar con carácter oficial en las competiciones internacionales.

Artículo 48.- Políticas sociales y sanitarias

Corresponden a la Comunidad de Euskadi con carácter exclusivo las políticas públicas sociales y sanitarias. Para la elaboración, ejecución y control de estas políticas públicas, las instituciones vascas tendrán todas las potestades legislativas y de ejecución en las siguientes materias y ámbitos:

- a) Sanidad interior y exterior.
- b) Ordenación farmacéutica y productos sanitarios y farmacéuticos.
- c) Asistencia social.
- d) Instituciones y establecimientos de protección y

- b) Lanbide-heziketa, eta horren barruan sartzen dira kualifikazioko eta lanbide-heziketa arautu, okupazional eta etengabeko prestakuntzako azpisistema guztiak.
- c) Ikasketa-tituluak eta lanbideetarako tituluak lortu, eman eta homologatzea.
- d) Kultura, arte eta monumentu ondarea defendatu eta babestea.
- e) Eskulangintza.
- f) Museo, liburutegi eta artxiboak.
- g) Zinema, arte eszenikoak, kirola eta ikuskizunak.
- h) Pentsaren, irriaren eta telebistaren araubidea, eta, orokorrean, gizarte-hedabide guztiena.

3.- Euskadiko Erkidegoaren kultur nortasun eta ordezkaritzaekin zerikusia duten gaiei dagokienez, Estatuak bermatuko du euskal nortasuna nazioartean ordezkatu egongo dela kirolaren arloko kultur adierazpide guztietan, eta orobat literatura, arte, zientzia eta teknikaren industria, produkzio eta sormenaren arlokoetan, Euskadiko Erkidegoaren ordezkaritza nazioarteko organoetan sartuz eta euskal kultura atzerrian sustatuz. Horretarako, akordioak izenpetu ahal izango ditu nazioarteko nahiz beste herrialde batzuetako instituzio eta erakundeekin.

4.- Euskadik kirol arloko selekzio nazionalak izateko eskubidea du, eta selekziook nazioarteko lehiaketetan ofizialki parte hartu ahal izango dute.

48. artikulua.- Gizarte eta osasun arloko politikak

Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik gizarte eta osasun arloko politika publikoak. Politika publiko horiek taxutu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:

- a) Barruko eta kanpoko osasuna.
- b) Farmazia-antolamendua eta osasun arloko eta farmaziako produktuak.
- c) Gizarte-laguntza.
- d) Adingabeak babestu eta zaintzeko instituzio eta





tutela de menores.

- e) Régimen e instituciones penitenciarias y de reinserción social.
- f) Desarrollo comunitario.
- g) Políticas de igualdad de género.
- h) Política infantil, juvenil y de tercera edad.
- i) Políticas de inmigración.
- j) Políticas de integración social y laboral.
- k) Políticas de igualdad de oportunidades.
- l) Políticas de protección a la familia.

Artículo 49.- Políticas sectoriales económicas y financieras

Corresponden a la Comunidad de Euskadi con carácter exclusivo las políticas públicas sectoriales económicas y financieras. Para la elaboración, ejecución y control de estas políticas públicas, las instituciones vascas tendrán todas las potestades legislativas y de ejecución en las siguientes materias y ámbitos:

- a) Defensa del consumidor y del usuario.
- b) Instalaciones de producción, distribución y transporte de energía.
- c) Régimen minero y energético y recursos geotérmicos.
- d) Agricultura y ganadería.
- e) Montes, aprovechamientos y servicios forestales, vías pecuarias y pastos.
- f) Pesca marítima y ordenación del sector pesquero; marisqueo y acuicultura; caza, y pesca fluvial y lacustre.
- g) Industria.
- h) Telecomunicaciones.
- i) Régimen de las nuevas tecnologías relacionadas con la sociedad de la información y del conocimiento.
- j) Investigación científica y técnica.
- k) Comercio interior y exterior; ferias y mercados; denominaciones de origen, y publicidad.

egoitzak.

- e) Espetxe eta gizarteratzeko instituzioak eta horien araubidea.
- f) Garapen komunitarioa.
- g) Genero-berdintasuneko politikak.
- h) Haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.
- i) Immigrazio-politikak.
- j) Gizartean eta lan-munduan sartzeko politikak.
- k) Aukera-berdintasunerako politikak.
- l) Familia babesteko politikak.

49. artikulua.- Ekonomia eta finantzen arloko politika sektorialak

Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik ekonomia eta finantzen arloko politika publiko sektorialak. Politika publiko horiek taxutu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:

- a) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa.
- b) Energia sortu, banatu eta garraiatzeko instalazioak.
- c) Meategien eta energiaren araubidea, eta baliabide geotermikoak.
- d) Nekazaritza eta abeltzaintza.
- e) Mendiak, baso ustiapen eta zerbitzuak, abelbi-deak eta larreak.
- f) Itsas arrantza eta arrantza-arloaren antolamendua; itsaski-bilketa eta arrain-hazkuntza; ehiza, eta ibai eta aintziretako arrantza.
- g) Industria.
- h) Telekomunikazioak.
- i) Informazioaren eta jakintzaren gizartearekin zerikusia duten teknologia berrien araubidea.
- j) Zientzia eta teknika arloko ikerketa.
- k) Barruko eta kanpoko merkataritza; feria eta azokak; jatorri-izenak, eta iragarkiak.





- l) Corporaciones de Derecho público, en particular cofradías de pescadores, y cámaras de comercio, industria y navegación.
- m) Colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas; régimen de notarios, registradores de la propiedad, agentes de cambio y bolsa, y corredores de comercio.
- n) Turismo, ocio y esparcimiento.
- o) Casinos, juegos y apuestas.
- p) Ordenación del crédito, banca y seguros.
- q) Cooperativas y mutualidades no integradas en la Seguridad Social.
- r) Instituciones de crédito y cajas de ahorros.
- s) Bolsas de comercio y demás centros de contratación de mercancías y de valores.
- t) Estadística.

Artículo 50. - Políticas de recursos naturales, ordenación territorial, vivienda y medio ambiente

- 1.- Corresponden a la Comunidad de Euskadi con carácter exclusivo las políticas públicas de recursos naturales, ordenación territorial, vivienda y medio ambiente. Para la elaboración, ejecución y control de estas políticas públicas, las instituciones vascas tendrán todas las potestades legislativas y de ejecución en las siguientes materias y ámbitos:
 - a) Medio ambiente y ecología.
 - b) Vertidos industriales y contaminantes.
 - c) Servicio meteorológico.
 - d) Aprovechamientos hidráulicos, canales y regadíos, y aguas minerales, termales y subterráneas.
 - e) Ordenación del territorio y del litoral.
 - f) Urbanismo y vivienda.
- 2.- En virtud de este Estatuto, constituirán bienes de dominio público de la Comunidad de Euskadi

- l) Zuzenbide publikoko korporazioak, arrantzaleen kofradiak bereziki, eta merkataritza, industria eta nabigazioko ganberak.
- m) Elkargo profesionalak eta tituludun lanbideetan aritzea; notarioen, jabetza-erregistratzaileen, truke eta burtsako agenteen eta merkataritza-artekarien araubidea.
- n) Turismoa, aisia eta olgeta.
- o) Kasinoak, jokoak eta apustuak.
- p) Kredituaren, bankuen eta aseguruaren antolamendua.
- q) Kooperatibak eta Gizarte Segurantzaren ez dauden mutualitateak.
- r) Kreditu-erakundeak eta aurrezki-kutxak.
- s) Merkataritzako burtsak eta salgai eta balioak kontratatzeko gainerako zentroak.
- t) Estatistika.

50. artikulua.- Naturako baliabideen, lurralde-antolamenduaren, etxebizitzaren eta ingurumenaren arloko politikak

- 1.- Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik naturako baliabideen, lurralde-antolamenduaren, etxebizitzaren eta ingurumenaren arloko politika publikoak. Politika publiko horiek taxutu, beteazazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:
 - a) Ingurumena eta ekologia.
 - b) Industriako isurpenak eta isurpen kutsagarriak.
 - c) Meteorologiako zerbitzua.
 - d) Ustiapen hidraulikoak, ubideak eta ureztatzeak, eta ur mineralak, ur beroak eta lurpeko urak.
 - e) Lurraldearen eta itsasbazterren antolamendua.
 - f) Hirigintza eta etxebizitza.
- 2.- Estatutu honen arabera, Euskadiko Erkidegoaren jabari publikoko ondasun izango dira haren





los recursos naturales ubicados en su territorio y, en particular, la zona marítimo-terrestre de su litoral y sus playas, el mar territorial adjunto hasta el límite de doce millas y los recursos naturales existentes en ellos. Por ley del Parlamento Vasco, que respetará las normas y tratados internacionales y los principios y objetivos esenciales de la legislación estatal, se regulará su administración, defensa y conservación.

Artículo 51.- Políticas de infraestructuras y transportes

- 1.- Corresponden a la Comunidad de Euskadi con carácter exclusivo las políticas públicas de infraestructuras y transportes. Para la elaboración, ejecución y control de estas políticas públicas, las instituciones vascas tendrán todas las potestades legislativas y de ejecución en las siguientes materias y ámbitos:
 - a) Ferrocarriles.
 - b) Transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable.
 - c) Puertos, helipuertos y aeropuertos.
 - d) Centros de contratación y terminales de carga en materia de transporte.
 - e) Obras públicas.
- 2.- En virtud de este Estatuto, serán de titularidad plena de la Comunidad de Euskadi todas las obras públicas e infraestructuras que se encuentren total o parcialmente en su territorio, independientemente de su calificación de interés general, incluidas todas aquellas que constituyen soporte de los sistemas de transporte y comunicaciones respecto de los tramos que se ubiquen o transcurran por su ámbito territorial.
- 3.- Las instituciones vascas coordinarán sus actuaciones y colaborarán con el Estado y con las comunidades autónomas a fin de salvaguardar sus intereses respectivos, aplicando la legislación básica estatal y la legislación específica sobre infraestructuras y obras públicas de interés general, sin perjuicio de lo dispuesto en este Estatuto.

Artículo 52.- Políticas de seguridad ciudadana y protección civil

- 1.- Corresponden a la Comunidad de Euskadi con carácter exclusivo las políticas públicas de seguridad para la protección de las personas y bie-

lurraldean dauden naturako baliabideak, eta, bereziki, itsasertza eta hondartzak, itsasoa –hamabi miliaren barruan– eta horietan guztietan dauden baliabide naturalak. Eusko Legebiltzarren lege baten bidez, nazioarteko arau eta itunak errespetatu eta Estatuko legeriaren funtsezko printzipio eta helburuak beteta, ondasun horiek nola administratu, babestu eta zaindu arautuko da.

51. artikulua.- Azpiegitura eta garraio arloko politikak

- 1.- Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik azpiegitura eta garraio arloko politika publikoak. Politika publiko horiek taxutu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:
 - a) Trenbideak.
 - b) Lurreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioa.
 - c) Portuak, heliportuak eta aireportuak.
 - d) Garraio-gaietako kontratazio-guneak eta zama-terminalak.
 - e) Herri-lanak.
- 2.- Estatutu honen arabera, Euskadiko Erkidegoaren erabateko jabetzakoak izango dira osoz edo zati batean Erkidegoaren lurraldean dauden herri-lan eta azpiegitura guztiak, kontuan izan gabe interes orokorrekotzat jota dauden edo ez, eta horien artean daude garraio eta komunikazio sistemen euskarri diren azpiegiturak ere, Erkidegoaren lurraldean dauden edo lurraldetik igarotzen diren zatiei dagokienez.
- 3.- Euskal instituzioek Estatuarekin eta autonomia-erkidegoekin koordinaturik eta elkarlanean jardungo dute, norik bere interesak babesteko, eta interes orokorreko azpiegitura eta herri-lanei buruzko Estatuko oinarritzko legeria eta gai berri buruzko legeria berezia aplikatuko dute, Estatutu honetan xedatuta dagoena betez betiere.

52. artikulua.- Herritarren segurtasunaren eta babes zibilaren arloko politikak

- 1.- Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik, pertsonak eta ondasunak babesteari begira, segurtasun arloko politika publikoak. Politika pu-





nes. Para la elaboración, ejecución y control de estas políticas públicas, las instituciones vascas tendrán todas las potestades legislativas y de ejecución en las siguientes materias y ámbitos.

- a) Funciones gubernativas y de seguridad.
- b) Régimen de la propia Policía o Ertzaintza.
- c) Protección civil.
- d) Salvamento marítimo.
- e) Tráfico y circulación de vehículos a motor.

- 2.- Quedan reservadas a las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado, para su ejercicio en la Comunidad de Euskadi, única y exclusivamente los servicios policiales asociados al control de las políticas públicas atribuidas al Estado con carácter exclusivo en este Estatuto.
- 3.- El mando supremo de la Ertzaintza corresponde a la lehendakari o al lehendakari.
- 4.- Una junta de seguridad, formada por igual número de representantes del Estado y de la Comunidad de Euskadi, garantizará la coordinación entre la Ertzaintza y las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado respecto a aquellos delitos que afecten tanto a la Comunidad de Euskadi como al Estado.

Artículo 53.- Políticas sociolaborales y de empleo

- 1.- Se atribuyen a la Comunidad de Euskadi todas las potestades y funciones públicas necesarias para establecer y regular su ámbito sociolaboral propio. Ejercerá sus competencias en materia sociolaboral atendiendo a los derechos y obligaciones esenciales de trabajadoras y trabajadores y empresarios y empresarios definidos en los ámbitos estatal y europeo.
- 2.- Corresponden a la Comunidad de Euskadi la potestad legislativa y la potestad de ejecución en materia laboral, de empleo, formación y prevención de riesgos laborales. A tal fin, la Comunidad de Euskadi podrá organizar, gestionar y tutelar, dentro de su territorio, todos los servicios relacionados con las materias citadas, incluida la función inspectora, sin perjuicio de la colaboración y cooperación con el Estado.

bliko horiek taxutu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:

- a) Agintaritzari eta segurtasunari buruzko eginkizunak.
- b) Ertzaintzaren araubidea.
- c) Babes zibila.
- d) Itsas salbamendua.
- e) Motordun ibilgailuen trafiko eta zirkulazioa.

- 2.- Estatuko segurtasun-indar eta kidegoen esku geratuko dira, Euskadiko Erkidegoan aurrera eramateko, oso-osorik Estatuaren esku utzitako politika publikoak kontrolatzeari lotuta dauden polizia-zerbitzuak, eta horiek baino ez.
- 3.- Lehendakaria izango da Ertzaintzaren agintari gorena.
- 4.- Estatuko eta Euskadiko Erkidegoko kide-kopuru beraz osatutako segurtasun-batzorde batek Ertzaintzaren eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoen arteko koordinazioa bermatuko du, delituek Euskadiko Erkidegoari eta Estatuari, biei, eragiten dienean.

53. artikulua.- Gizarte, lan eta enplegu arloko politikak

- 1.- Euskadiko Erkidegoaren esku uzten dira gizarte eta lan arloko eremu propioa ezarri eta arautzeko beharrezko diren ahal eta eginkizun publiko guztiak. Gizarte eta lan arloan dituen eskumenak erabiltzeko, kontuan izango ditu langile eta enpresaburuen oinarrizko eskubide eta betebeharrak, Estatuan eta Europa mailan zehaztuta daudenak.
- 2.- Euskadiko Erkidegoari dagozkio legegintzako eta betearazteko ahalak lan, enplegu eta prestakuntza arloan eta laneko arriskuei aurrea hartzekoan. Horretarako, eta bere lurraldean, Euskadiko Erkidegoak aipatu diren arlo horiekin zerikusia duten zerbitzu guztiak antolatuz, kudeatu eta zaindu ahal izango ditu, horien artean ikuskaritza dela, betiere Estatuarekiko elkarlanean eta lankidetzan.





3.- Las instituciones vascas serán competentes para determinar, dentro de su ámbito territorial, la representatividad de las organizaciones sindicales y empresariales atendiendo a criterios estrictamente democráticos, así como el régimen y eficacia de la negociación colectiva, sin perjuicio del respeto a la voluntad pactada entre las organizaciones sindicales y empresariales de la Comunidad de Euskadi.

4.- Las instituciones vascas establecerán los oportunos instrumentos bilaterales con el Estado y la Unión Europea para la colaboración y cooperación en el ejercicio de las competencias en materia laboral. Las relaciones de carácter financiero derivadas del ejercicio de éstas, incluida la participación en fondos de ámbito estatal o europeo, se sujetarán al sistema de Concierto Económico previsto en este Estatuto, atendiendo al principio de solidaridad.

5.- Los poderes públicos vascos ajustarán el ejercicio de las competencias en materia laboral a criterios de participación democrática de las organizaciones sindicales y empresariales, procurando que las condiciones de trabajo se adecuen al nivel de desarrollo y progreso social, y promoviendo la cualificación de las trabajadoras y trabajadores y su formación continua a lo largo de toda la vida laboral.

6.- El Consejo Vasco de Relaciones Laborales será la entidad consultiva de las instituciones vascas en materia sociolaboral y constituirá el órgano de encuentro y diálogo permanente entre las organizaciones sindicales y las confederaciones empresariales en el ámbito de la Comunidad de Euskadi, con el objetivo de fomentar la negociación colectiva y promover la mediación y el arbitraje en los conflictos laborales.

El Consejo Vasco de Relaciones Laborales gozará de personalidad jurídica propia e independiente para el desarrollo de sus atribuciones, que serán reguladas por ley del Parlamento Vasco.

Artículo 54. - Políticas de protección social

1.- Los poderes públicos vascos mantendrán un régimen público de seguridad social para todas las ciudadanas y ciudadanos que garantice la asistencia y las prestaciones sociales suficientes ante situaciones de necesidad.

2.- Corresponde a las instituciones vascas la potestad de desarrollo de la legislación del Estado en materia de previsión social y de seguridad so-

3.- Euskal instituzioek eskumena izango dute, beren lurralde-eremuan, sindikatuen eta enpresaburu-elkarteen ordezkariak zehazteko, irizpide erabat demokratikoak erabilia, bai eta negoziazio kolektiboaren araubidea eta eraginkortasuna zehazteko ere, Euskadiko Erkidegoko sindikatuek eta enpresaburu-elkarteek hitzartutakoa errepetatuz.

4.- Euskal instituzioek behar diren alde biko tresnak ezarriko dituzte, bai Estatuarekin eta bai Europar Batasunarekin, lan arloko eskumenak erabiltzerakoan elkarlanean eta lankidetzan aritzeke. Eskumen horiek erabiltzearen ondorioz funtza arloan sortzen diren harremanak, Estatu-ko edo Europako funtsetan parte hartzea barne, Estatutu honetan aurreikusitako Ekonomia Itunaren sistemari lotu beharko zaizkio, solidaritate-printzipioa kontuan hartuta.

5.- Lan arloko eskumenak erabiltzerakoan, sindikatuen eta enpresaburu-elkarteen parte-hartze demokratikoaren irizpideei jarraituz jardungo dute euskal agente publikoek; horrekin batera, lan-baldintzak gizartearen garapen eta aurrerapen mailarekin bat etor daitezzen saiatuko dira, eta langileen kualifikazio eta etengabeko prestakuntza sustatuko dute, langileok lanean emango dituzten urte guztietan zehar.

6.- Gizarte eta lan arloko gaitetan, Lan Harremanen Euskal Kontseilua izango da euskal instituzioentzako erakunde aholku-emailea, eta sindikatuen eta enpresaburu-konfederazioen arteko bilera eta elkarrizketarako organo iraunkorra izango da Euskadiko Erkidegoan. Kontseilu horren helburua negoziazio kolektiboa sustatzea eta lan arloan sortzen diren gatazketan bitartekotza eta arbitrajea bultzatzea da.

Lan Harremanen Euskal Kontseiluak nortasun juridiko propioa eta independentea izango du jaso dituen eskurantzak garatzeko. Eskurantza horiek Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez arautuko dira.

54. artikulua.- Gizarte-babeseko politikak

1.- Euskal agente publikoek gizarte-segurantzako erregimen publiko bat mantenduko dute herritar guztientzat, eta horren bidez premia sortzen den behar besteko laguntza eta gizarte-prestazioak izatea bermatuko da.

2.- Euskal instituzioen eginkizuna izango da Estatuak gizarte-aurreikuspenaren eta gizarte-segurantzaren arloan duen legeria garatzea, eta bai-





cial, así como la gestión del sistema público de seguridad social en su ámbito territorial, que se ejercerá con un presupuesto propio y que incluirá la función recaudadora de las cotizaciones sociales devengadas en la Comunidad de Euskadi y la gestión del patrimonio ubicado en su territorio y afecto al sistema.

- 3.- Las instituciones vascas garantizarán el principio de unidad en la titularidad de los recursos del sistema de seguridad social del conjunto del Estado. A tal efecto, su participación financiera en él se sujetará al sistema de Concierto Económico previsto en este Estatuto, en el que se regularán los flujos económicos y los mecanismos de inspección que garanticen los principios de solidaridad y no discriminación entre las ciudadanas y ciudadanos del conjunto del Estado.
